

**2020/2021eko IRAKASLEEN LEKUALDATZE-LEHIAKETA**

KIDEGOAK: BIGARREN HEZKUNTZAKO, HIZKUNTZA ESKOLA OFIZIALETAKO, MUSIKA ETA ARTE ESZENIKOETAKO ETA ARTE PLASTIKOETAKO ETA DISEINUKO KATEDRADUN ETA IRAKASLEAK, LANBIDE HEZIKETAKO IRAKASLE TEKNIKOAK ETA MAISU-MAISTRAK.

2020ko azaroaren 4an Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen da Hezkuntza Sailburuaren 2020ko urriaren 22ko agindua, aipatutako irakasle-kidegoetako karrerako funtzionarioen artean lekualdatze-lehiaketak deitzen dituen.

1º.- Parte hartzeko eskaera:

Lekualdatze-lehiaketan parte hartzea formalizatzeko era bakarra hau izango da: irakaslegunea-n eskura dagoen eskaera elektronikoa betetzea. Eskaera horretara sartzeko internet <http://www.irakasle.eus>. helbidean erabiltzaile eta pasa-hitza sartzen da. Bi aukera daude,

-irakasleen posta elektronikoaren erabiltzailea eta pasa-hitza (irakasle.eus) edo, izan ezean,

-NANaren (letrarekin) eta irakaslegunearen ingurune horretara sartzeko pasa-hitzen bidez.

Pasa-hitza izan edo gogoratu ezean, pasa-hitza berreskuratzeko zerbitzu bat, “pasa-hitza eskuratu edo berreskuratzea” deritzona, duzu aipatutako helbidean eskura.

2020ko azaroaren 5etik 26ra bitartekoa, biak barne, izango da eskaerak bete eta merituen eta baldintzak justifikatzeko dokumentazioa aurkezteko epea.

Praktiketako funtzionarioek EZ dute merezimenduak egiaztatze inolako dokumentaziorik aurkeztu behar, lanpostu hirueledunak eskatuz gero titulu edo ziurtagiriak egiaztatzeari lotutakoa izan ezik, titulu edo ziurtagiri horiek ez badira Pertsonalaren erregistroan jasota agertzen.

2º.- Aplikazio informatikoaren gida:

Prozesu horretan parte-hartzea errazteko asmoz, parte hartzeko eskaeraren on-line grabazioari buruzko gida bat emango da Internet-eko helbide hauetan argitara: <http://www.irakasle.eus> (“albisteen” atalean) eta <http://www.euskadi.eus/eusko-jaurjaritza/hezkuntza-langileak> (“Lekualdatze lehiaketa” atalean); halaber, prozesua behar bezala garatzeko behar den informazio guztia emango da ere argitara.

3º.- Merezimenduen baremoa:

3.1.- Zein merezimendu baloratzen dira?: Deialdiaren I. eranskinean adierazten direnak.

***GARRANTZITSUA:** deialdiaren I. eranskina zehatz-mehatz IRAKURRI behar da. Eranskin honetan baloratzen diren merezimenduak eta justifikatzeko aurkeztu beharreko dokumentazioak agertzen dira, baita Administrazioak berak ofizioz zenbatzen dituen merezimenduak ere (hots, lehiatzaileak ez du, horiek egiaztatzeko, dokumentaziorik aurkeztu behar). Gerta liteke atal bereko merezimenduak baloratzeko, kasu batzuetan ofizioz egitea, eta beste kasu batzuetan, ordea, parte-hartzaileak merezimendu horren egiaztagiria aurkeztea beharrezkoa izatea.

3.2.- Zein merezimendu baloratzen ditu, ofizioz, Administrazioak?, hots, lehiatzaileak ez du egiaztagiririk aurkeztu beharrik:

a.- Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Sailean emandako zerbitzuak (1.1.1, 1.1.2, 1.1.3, eta 1.2 atalak).

b.- Euskal Autonomia Erkidegoko Katedradunen Kidegoetakoak izatea (2. atala).

c.- Ondorengo tituluak (3. Atala), baldin eta Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Saileko Langileen Erregistroan agertzen badira:

- Doktore tituluak.
- Irakaskuntzako funtzio publikoan sartzeko eskatutakoa ez den Masterraren unibertsitate-titulu ofiziala
- Graduaren unibertsitate-titulu ofiziala
- Diplomatura, ingeniari tekniko, arkitektura teknikoak
- Lizentziaturak, ingeniariak edo arkitekturak
- Lanbide Heziketako Goi-mailako teknikaria

d.- EAEko eta beste autonomia erkidego batzuetako Hizkuntza Eskola Ofizialek, beste autonomia erkidego batzuetakoetan emandakoen kasuan Pertsonalaren Erregistroan jasota agertzen badira, emandako ziurtagiriak /tituluak.

e.- Euskal Autonomia Erkidegoko eta beste autonomia erkidego batzuetako ikastetxe publikoetan, beste autonomia erkidego batzuetako kasuan Pertsonalaren Erregistroan jasota agertzen badira, bete diren ondorengo zuzendaritza-karguak:

Zuzendaria, idazkaria, ikasketa-burua eta haren albokoak, zuzendariordea, idazkariordea, Lanbide Heziketako idazkariordea eta gaueko ikasketa-burua (4.1 eta 4.2 atalak)

f.- Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Sailak antolatutako prestakuntza-jarduerak eta Hezkuntza Sail horrek homologatu edo ezagututako irabazi asmorik gabeko instituzioek antolatuak, hots, Garatu ikastaroak eta EAEko Hezkuntza Sailak homologatutako ikastaroak (5.1 eta 5.2 atalak).

g.- Espezialitate berria lortu izana EAEan (5.3 atala)

h.- Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Sailak deitutako ikerketa- edo berriztapen-proiektuetan parte hartzea (6.7 atala).

i.- Irakaskuntza-kidegoetara sartzeko Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Sailak deitutako aukeratze-prozeduretarako epaimahaietan kide gisa parte hartzea(6.5 atala).



j.- Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Sailaren hizkuntz eskakizunak (6.2 atala).

3.3.- Lehiatzaileak erakutsi behar dituen merezimenduak:

I. eranskinen (merezimenduen baremoa) aurreikusten diren merezimenduak egiaztatzeko dokumentazioa, argibide hauen 4.2. atalean adierazitakoaren arabera ofizioz zenbatzeko merezimenduak diren edo dagoeneko Pertsonalaren Erregistroan jasota agertzen diren kasuetan izan ezik. Gainera, "Merezimenduak alegatzeko eta egiaztatzeko orria" aurkeztu ahal izango da, eta bertan zerrendatuko da aurkezten den dokumentazioa..

Kontsultatu ahal izango da hurrengo atalei buruzko informazioa: zerbitzuei, tituluei, ikastaroei eta zuzendaritza-karguei buruzko informazioa. Informazio hori Pertsonalaren Erregistroan dago, <http://www.irakasle.eus> web orrian, espediente pertsonalaren atalean.

Zuzendaritza-karguei dagokienez, hurrengoak ikusi ahal izango dira:

- Zuzendaria, zuzendari albokoa, zuzendariordea.
- Idazkaria, idazkari albokoa, idazkariordea.
- Ikasketa-burua, ikasketa-buru albokoa, gaueko ikasketa-burua.
- Lanbide Heziketako ikastetxeetako Administratzailea

Zure historiala osorik ez balego, merezimenduak aurkezteko epean aurkeztu beharko duzu aipatutako historialean agertzen ez diren merituek justifikatzeko dokumentazioa, Hezkuntza Sailaren datu-basean sartzeko eta lekualdatze-lehiaketan merezimendu gisa zenbatzeko.

4.- Merezimenduen baremoaren aukerak (merezimenduei buruzko dokumentazioa errazago entregatzeko)

ON-LINE eskaeran, 2010/2011ko, 2011/2012ko, 2012/2013ko, 2013/2014, 2014/2015, 2015/2016, 2016/2017, 2017/2018, 2018/2019 edo 2019/2020ko lekualdatze lehiaketetan parte hartzen duten funtzionarioek "lehiakide guztiak betetzeko" atalean hurrengo aukera hauetako bat adierazi beharko du:

- A)** Parte hartu zuen azken lehiaketaren (2010/2011ko edo ondorengoak) puntuazioari eustea.
- B)** Merezimendu berriak gehitzea.
- C)** Barematze berria.

Aukera hauek (puntuazioari eustea, merezimendu berriak gehitzea, barematze berria) I. eranskinen ataletan ofizioz konputatzen ez diren merezimenduei dagokie, bakar-bakarrik. Ofizioz konputatzen diren merezimenduak automatikoki eguneratuko dira, erabiltzen den aukera edozein izanda ere

2010/2011ko, 2011/2012ko, 2012/2013ko, 2013/2014, 2014/2015, 2015/2016, 2016/2017ko, 2017/2018ko, 2018/2019 edo 2019/2020 lekualdatze lehiaketetan parte hartu ez zutenek ezin izango dute ondorengo aukerak hautatzea: "azken lehiaketaren puntuazioari eustea" edo "Merezimendu berriak gehitzea".

OHARRA: Zein aukera erabiliko duzun erabakitzeko, 2010/2011ko, 2011/2012, 2012/2013ko, 2013/2014ko, 2014/2015, 2015/2016, 2016/2017, 2017/2018, 2018/2019 edo 2019/2020ko lekualdatze-lehiaketetan lortutako puntuazioak kontsultatu ahal izango dituzu. Kontsulta hori egin ahalko da <http://www.irakasle.eus> helbidean, lekualdatze-lehiaketan sartu eta "berriak" atalean begiratu "Aurreko lekualdatze-lehiaketen puntuazioen kontsulta";

bestalde, eskaera on-line egiteko orduan, aukera hautatzeko baremoaren atalean, ikonoan klik eginez parte hartu zuen azken lekualdatze-lehiaketan izandako puntuazioa agertzen da.



A) Parte hartu zuen azken lehiaketaren (2010/2011ko edo ondorengoak) “puntuazioarekin jarraitzea “ aukera hautatzeak honako hau esan nahi du:

- Parte hartu zenuen azken lehiaketaren (2010/2011ko edo ondorengoak a,) I. eranskinen 3.1.3, 3.1.4, 4.3, 6.1, 6.3, 6.4 eta 6.6 ataletan izan zenituen puntuazioekin jarraitzen duzula lehiaketa berri honetan.
- Ezin duzula barematzeko dokumentazio berririk aurkeztu aipatutako ataletan.
- Administrazioak ofizioz gaurkotuko dizkizula I. eranskinen 2., 5. eta 6. ataletan ofizioz doazen merezimenduak, betiere parte hartu zenuen azken lekualdatze-lehiaketan eskaerak aurkezteko epea bukatu ondoren hobetutako merezimenduak badira ⁱⁱⁱ
- I. eranskinen gainontzeko atalen merezimenduak baloratzeko, kasu bakoitzean I. eranskinen eta deialdiaren hemeretzigarren basean adierazten dena hartuko da kontuan .

B) “Parte hartu zenuen azken lehiaketaren ondorengo beste merezimendu batzuk gehitzea” aukera

Aukera honek suposatzen du parte-hartzaileak parte hartu zuen azkeneko lekualdatze-lehiaketan (2010/2011ko edo ondorengoak) 3.1.3, 3.1.4, 4.3, 6.1, 6.3, 6.4 eta 6.6 ataletan lortutako puntuarekin ados dagoela eta parte hartu zuen azkeneko lekualdatze-lehiaketan barematutakoei geroztik izandako meritu berriak gehitu nahi dituela **(*1)**.

Kasu horretan, eta aipatutako atalei dagokienez, parte hartu zuen azken lekualdatze-lehiaketako eskabideak aurkezteko epe-amaieraren ondotik amaitutako eta lortutako merezimenduak, aurkeztu beharko duzue (kasuaren arabera, 2010eko abenduaren 15etik, 2012ko urtarrilaren 28tik, 2012ko azaroaren 23tik, 2013ko azaroaren 21etik, 2014ko azaroaren 25etik aurrera, 2015ko abenduaren 22tik aurrera, 2016ko azaroaren 29tik aurrera, 2017ko abenduaren 14tik aurrera, 2018ko azaroaren 28tik aurrera edo 2019ko abenduaren 20tik aurrera) lehiaketa honetako eskabideak aurkezteko epea amaitu arte. Aipatutako atalen edo azpiatalen batean puntuazio gehiena atera badute, ez da beharrezkoa dagokion atalean edo azpiatalean meritu berriak gehitzea.

Atal horietako merezimendu berriak adierazitako daten aurrekoak badira, ez dira barematuko. Aitzitik, beste atal edo azpiatal batzuei dagozkien merezimenduak aurkeztu ahal izango dituzte.

C). - “Barematze berria “ aukera

Aukera hau honako kasuren batean dagoenarentzat da:

- Parte hartu zuten azkeneko lekualdatze-lehiaketa data baino lehenagoko 3.1.3, 3.1.4, 4.3, 6.1, 6.3, 6.4 eta 6.6 ataletako merezimenduak barematzea nahi dutenek edo atal horietan egindako baremazioarekin ados ez daudenentzat. **(*1)**
- 2010/2011ko edo ondorengo lekualdatze lehiaketetan eta aipatutako ataletan egindako baremazioarekin ados ez daudenentzat.
- 2010/2011ko, edo ondorengo lekualdatze lehiaketetako deialdietan parte hartu ez dutenentzat.



- 2020ko irailaren 1ean karrerako funtzionario izendatuta egon eta oraindik destinatorik lortu ez dutenentzat.
- Erkidego honetan destinoa lehen aldiz 2018/2019 ikasturtean lortu zuten beste autonomia erkidego batzuetako funtzionarioentzat eta lehen aldiz parte hartzen dute une horretatik.

Atal guztiei dagokien ziurtagiriak, deialdian aurreikusten den arabera, aurkeztu beharko dituzte baloratuak izan daitezen.

Ofizios barematzen direla I. eranskinean horrela xedatzen diren merezimenduak.

GARRANTZITSUA

Merezimenduak justifikatzeko dokumentazioa 2020ko azaroaren 5etik 26ra bitartean entregatu beharko dela, baita on-line eskaera bete ere, hartu beharko da kontuan.

Aplikaziora sartzeko erabiltzailearekin edo on-line parte hartzeko eskaera grabatzeko prozesuarekin gerta litezkeen intzidentzia teknikoak garaiz konpondu ahal izateko, funtsezkoa da erabiltzailea eta pasa-hitza berreskuratzea (gogoratzen ez badira) gomendatzen da azken unera arte ez uztea, ezta eskaeraren grabazioa ere.

Espezialitateak eskuratzea:

Beste espezialitate batzuk ezagutzeko, **eskaera** bat aurkeztu beharko zaio Langileak Kudeatzeko zuzendariari, lekualdatze-lehiaketan eskaerak aurkezteko epeak bukatu aurretik. Horretarako, Sailaren web orrian eskura dagoen inprimakia erabili beharko da. Eskaera baiesten edo ezesten duen aditzera emateko, behar den ebazpena emango du Langileak Kudeatzeko zuzendariak.

(*1)

AZKEN LEKUALDATZE-LEHIKETEN DEIALDIK		
<u>LEHIAKETA</u>	<u>EHAA</u>	<u>Eskabideak aurkezteko epearen amaiera</u>
2010/2011	2010/11/22	2010/12/14
2011/2012	2011/12/16	2012/01/27
2012/2013	2012/10/31	2012/11/22
2013/2014	2013/12/02	2013/12/20
2014/2015	2014/30/10	2014/11/24
2015/2016	2015/12/02	2015/12/21
2016/2017	2016/10/27	2016/11/28
2017/2018	2017/11/20	2017/12/13
2018/2019	2018/10/31	2018/11/27
2019/2020	2019/11/29	2020/12/19